

Etorkizuneko Enpleguaren Kalitatea (EEK)

Laburpen exekutiboa

2025/06/09

Sarrera.

Etorkizuneko Enpleguaren Kalitatea (EEK) proiektuak eraikuntza sektorearen erronka nagusiak jorratu ditu Gipuzkoan, bereziki enpleguaren egoerari, gaitasun profesionalari eta prestakuntza-eskaintzaren eta benetako ekoizpen-sarearen beharren arteko egokitzapenari dagokienez. Hasierako entregableetan egindako analisiek argi utzi zuten Gipuzkoako eraikuntza sektorea trantsizio-garaian dagoela.

❖ Sektorearen disgnostikoa

Eraikuntza sektorearen pisua, Barne Produktu Gordinaren barruan, %6,4tik (2000) %4,9ra (2023) murriztu da

- Enpresa txikien kontzentrazio handia (%95), krisien aurrean bereziki ahulak.
- Langilegoa zahartua eta nabarmen maskulinizatua dago (%90 gizonezko).
- Gazte talentua erakartzeko eta belaunaldi-erreleboa bermatzeko zailtasunak identifikatu dira.

❖ Eskari handiena duten lanbide-profilak:


Bi tentsio nagusi:

- Lanbide tradizionalak (igeltseroak, peoiak, iturginak eta elektrizistak) eskari handia dute, eta horien ezaugarri dira lanpostuen rotazio handia, plantillaren zahartzea eta sektorearen maskulinizazio nabarmena.
- Digitalizazioari, iraunkortasunari eta industrializazioari loturiko lanbide-profil berrien eskari gero eta handiagoa, hala nola BIM modelatzaileak, eraginkortasun energetikoko espezialistak edota birgaitze-teknikariak.


❖ Prestakuntza-arrakala::

- 1) Gaur egungo hezkuntza-eskaintzak ez die erantzuten iraunkortasunari, digitalizazioari edo industrializatutako eraikuntzari lotutako gaitasun berriei.
- 2) Enpresek ziurgabetasuna agertzen dute etorkizuneko lanbide-profilen inguruan, baina ados daude egokitzeko premia larriaz. Las empresas

Sektorean enpleguaren egoera



Lan-merkatuaren bi tentsio nagusi:



Europatik Gipuzkoaraino

Europako eraikuntza sektorea eraldaketa estruktural betean dago, hiru erronka nagusiri erantzunez: **jasangarritasuna, digitalizazioa eta trantsizio demografikoa**. Eboluzio-prozesu horrek bat egiten du politika komunitarioekin, hala nola *Europako Itun Berdea*, *Renovation Wave* ekimena eta *EPBD* zuzentaraua, bai eta azpiegiturak berritzeko, emisioak murrizteko eta eraikinen eraginkortasun energetikoa hobetzeko premia gero eta handiagoarekin ere.

❖ Erronka nagusiak

- **Langilegoaren zahartze nabarmena:** langileen %34,5ek 50 eta 64 urte bitartean dituzte; **eta zailtasunak talentu berria erakartzeko** (gazteak ez ezik, adin guztietako emakumeak ere barne).
- **Profil kualifikatuen eskasia** eginkizun berrietarako: **jasangarritasuna, errehabilitazio energetikoa, BIM teknologia.**

Joera horiek gaitasun tekniko berrien eskari gero eta handiagoa eragiten dute, eta eskari hori askotan ez da estaltzen ohiko prestakuntza-ibilbideek eskaintzen dituzten aukerekin.

Gipuzkoan, erronka berak errepikatzen dira, zenbait kasutan are nabarmenago: **langilegoaren zahartze handiagoa, sektorearen maskulinizazio-maila handia** (emakumeak soilik %10), **profil espezializatuen gabezia, eta Europako trantsizio-prozesuari lotutako lanbide-profilen prestakuntza-estaldura eskasa**. Horrenbestez, lurraldeak bere prestakuntza- eta lan-ekosistema eguneratzeko aukera du, bestela egiturazko desorekekin egingo du topo, eta horiek bere lehiakortasuna mugatu dezakete.

Europako Itun Berdea	Zaharkitzea
Renovation Wave	Maskulinizazioa
EPBD Zuzentaraua	Etxebizitza-eskasia

*Ingurumen-inpaktu handiko eta produktibitate txikiko sektorea berrasmatzeko beharra, **digitalizatuagoa, industrializatuagoa eta jasangarriagoa** den eredu baterantz, talentu berriarentzat erakargarria, eraginkorra eta klima-neutralea izango dena.*

Eskari handiena duten lanbide-profil profesionalak

UNEKO ESKARI HANDIENEN PROFILAK	
INSTALAZIOAK	• Iturgina • Eraikuntza-elekttrizista • HVAC / Klimatizazio-instalatuzaileak
MUNTAKETA INDUSTRIALA ETA BIRGAITZEA	• Egitura metalikoen muntatzailea • Estalkien muntatzailea • Hormigoi aurrefabrikatuko piezen muntatzailea
AKABERA ETA MANTENTZE LANAK	• Arotza • Eskaiolista • Margolaria / Paper-jartzailea • Eraikinen mantentze-lanetako langilea
TEKNIKARIAK ETA ERDI MAILAKO ARDURADUNAK	• Eraikuntzako teknikari • Obrako gainbegirale / Kapataz • Arkitekto tekniko / Aparejadore
JASANGARRITASUNA	• Instalazio fotovoltaiakoen teknikari
MAKINA-OPERADOREAK	• Orga jasotzaileen operadorea • Lur-makinen operadorea

ETORKIZUNEN PROIEKTU HANDIENEN PROFILAK	
JASANGARRITASUNA ETA ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA	• Eraginkortasun energetikoko espezialista • Eraikuntzari aplikatutako energia berriztagarrien teknikari • Errehabilitazio energetikoko koordinatzailea • Eraikuntzako hondakinen kudeatzailea • Energia-auditorea
DIGITALIZAZIOA ETA GARAPEN-BIDEAN DAUDEN TEKNOLOGIAK	• BIM modelatzailea • BIM koordinatzailea • Robotika eta automatizazioan espezialista • Eraikuntzako datu-analista • BMS sistemen teknikari • GIS espezialista eraikuntzarako aplikatua
INDUSTRIALIZAZIOA ETA PROZESU BERRIAK	• Aurrefabrikatutako elementuen muntatzailea • Eraikuntza modularrean espezialista • Fabrikazio digitalean teknikari
KUDEAKETA TEKNIKA ETA JASANGARRITASUN AURRERATUA	• Iraunkortasuneko proiektu-kudeatzailea • Klimatizazio- eta konfort-sistemetak ingeniaria

Prestakuntza-eskaintza, indarguneak eta gabeziak

❖ Estaldura eskasa duten lanbide-profil berriak:

- Prestakuntza tradizioletarako prestakuntza ondo egituratuta dago eta merkatuarekin lotura zuzena du
- Profil teknikoetarako prestakuntza-gabeziak daude, hala nola enkofratzaileak, HVAC instalatzaileak edo egitura metalikoen eta estalkien muntatzaileak

❖ Estaldura eskasa duten lanbide-profil berriak:

- **Jasangarritasuna:** energia-auditorearen edo hondakinen kudeatzailearen profilak ez dute prestakuntza egituraturik, ez eta aitortutako ziurtagiri profesionalik ere.
- **Digitalizazioa:** BIM modelatzaileak prestakuntza partziala du; rol aurreratuek (datu-analista, BMS espezialista, GIS espezialista) ez dute prestakuntza-ibilbide argirik.
- **Industrializazioa:** funtsezko profilek sistemaren gabezia handienak erakusten dituzte (adib. aurrefabrikatuen muntatzailea, fabrikazio digitaleko teknikariak)
- **Kudeaketa aurreratua:** Ez dago jasangarritasuna, lidergoa eta kudeaketa teknikoaren uztartzen duten programarik (adib. proiektu-kudeatzaile iraunkorra).

❖ Prestakuntza eta enpresen arteko elkarlana

CIFPeK (EAGI, Easo Politeknikoa) lotura sendoa dute sektorearekin, nahitaezko FCT praktikaren bidez. **Unibertsitateek** (UPV/EHU, Mondragon, TECNUN) goi-mailako prestakuntza eskaintzen dute hitzarmen mistoen bitartez, eta profil teknologikoetan nabarmentzen dira. **Implika** edo **FLC** bezalako zentroek malgutasuna eta enplegurako orientazioa eskaintzen dute, nahiz eta oraindik sisteman integratuta ez egon modu arautu eta zabalean.

❖ Erronka nagusiak:

- Profil berritzaileen eta egungo eskaintzaren arteko desoreka.
- Etorkizuneko profiletarako prestakuntza arautuaren presentzia eskasa
- Lanbide Heziketaren, unibertsitatearen eta zentro pribatuen arteko lotura aula
- berritzaileetarako praktika-hitzarmen berrien premia.

Kategoria	Estaldura maila
EGITURAZKO OBRA	Handia
INSTALAZIOAK	Ertaina
MUNTAKETA INDUSTRIALA ETA ERREHABILITAZIOA	Ertaina
AKABERAKO ETA MANTENTZE-LANETAKO LANBIDEAK	Ertaina/Handia
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIAK ETA ARDURADUNAK	Handia
ENERGIA BERRITZAGARRIAK ETA JASANGARRITASUNA	Handia
MAKINERIAKO OPERADOREAK	Handia
JASANGARRITASUNA ETA ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA	Ertaina/Txikia
DIGITALIZAZIOA ETA TEKNOLOGIA BERRIAK	Ertaina/Txikia
INDUSTRIALIZAZIOA ETA PROZESU BERRIAK	Txikia
KUDEAKETA TEKNIKOA ETA IRAUNKORTASUN AURRERATUA	Ertaina

Gomendioak

Sektorearen premia estrategikoak

Lanbide Heziketaren egitura eguneratzea

Kualifikazio eta eguneratze profesionala bultzatzea

Prestakuntza-zentroen eta enpresen arteko lotura egonkorrak

Eragile giltzarren arteko lankidetzak egonkorreko espazioak sortzea


Gazteen eta emakumeen artean sektorearen erakargarritasuna

Irakaskuntza-metodoak gaurkotzea

GOMENDATUTAKO JARDUERAK

- | | | |
|--|---|--|
| 1) <i>Lanbide Heziketako Heziketa Duala bultzatzea</i> |  | Teoria eta praktika uztartzen dituzten ibilbideak garatzea, enplegarritasuna eta prestakuntza-beharren egokitzapena hobetzeko. |
| 2) <i>Ikastetxeen eta enpresen arteko lankidetzak-hitzarmenak sendotzea laneratzea errazteko</i> |  | Prestakuntza-programen edukia eta lan-merkatuaren eskakizunen arteko bateratasuna indartzea, ikasleen enplegarritasuna bermatuz ikasketak amaitzean. |
| 3) <i>Gazte eta emakumezko talentua sentsibilizatzea eta erakartzea</i> |  | Ikasle gazteen eta emakumeen ezagutza, interesa eta sarbidea handitzea Gipuzkoako eraikuntza sektorean eta bertako lan-aukeretan.. |
| 4) <i>Sektoreko lanbide tradizionalen eguneratzea</i> |  | Eraikuntzako lanbide tradizionalen lotutako prestakuntza-edukiak modernizatzea, enplegarritasuna hobetzeko eta sektorearen erroka berrietara egokitzeko. |
| 5) <i>Irakasleen eguneratze-plan baten sustapena</i> |  | Lanbide Heziketako irakasleek eta prestakuntza-zentroetako talde teknikoek eraikuntza sektorearen eraldaketarekin bat datorren prestakuntza emateko beharrezko gaitasun eguneratuak izatea bermatzea. |
| 6) <i>Hezkuntza-zentroen eta Gipuzkoako enpresen arteko bisitak eta topaketak</i> |  | Hezkuntza-ingurunea eta enpresa-ekosistemaren arteko lotura sendotzea, ikasleek sektorearen errealitatea gertutik ezagutzeko aukera izango duten bisitak bultzatuz, eta aldi berean, enpresak ikasleen gaitasun hezitzaileen inguruan sentsibilizatuz. |

7) <i>Espezializazio-ikastaro laburren eskaintza zabaltzea</i>		Langileek eta berriz prestatzeko prozesuan dauden pertsonen funtsezko gaitasunak modu azkar, malgu eta sektorearen eskakizun berriekin lerrokatuta eskuratu ahal izateko, mikroprestakuntza labur eta eskuragarriak diseinatzea eta sustatzea.
8) <i>Lan-taldeak eta gai jakinetako lankidetzak-proiektuak</i>		Enpresen, prestakuntza-zentroen, sektore-klusterren eta prestakuntza-prozesuan dauden edo enplegua bilatzen ari diren pertsonen arteko elkargune eta lankidetzak-dinamikak sustatzea, gaitasunen eskaintza merkatuaren benetako eskariari egokitzeko eta profil profesional berrien beharrak aurreikusteko.
9) <i>Langabetuentzako prestakuntza espezifikoa, haien birkualifikazio profesionala eta enplegarritasuna hobetzeko.</i>		Langabetuen laneratzea sustatzea, sektoreko profil tradizioaletara ez ezik, lanbide berrietara ere bideratutako prestakuntza-ibilbide espezifikoaren bidez.
10) <i>Funtsezko profil profesionalak erakartzeko programak</i>		Eraikuntzaren sektorean betetzeko zailtasun handienak dituzten profil profesioaletara gazte talentua erakartzeko ekintza espezifikoak diseinatzea eta ezartzea.
11) <i>Prestakuntza-zentroen eta ASCONGIren arteko loturaren sustapena</i>		Gipuzkoako eraikuntza-sektoreko prestakuntza-zentro nagusien eta ASCONGIren (Gipuzkoako Eraikuntza Enpresen Elkarte) arteko harreman jarraitu eta arina ezartzea, prestakuntzaren eta enpleguaren arteko zubia sendotzeko helburuarekin.
12) <i>Prestakuntza praktikoan berrikuntza teknologikoa</i>		Errealitate areagotua, errealitate birtuala eta simulagailu interaktiboak bezalako teknologia murgiltzaileak Lanbide Heziketako prestakuntza praktikoetan txertatzea, irakaskuntza modernizatzeko eta ikasleen motibazioa areagotzeko helburuarekin.



*Partners in
innovation.
Leaders in
construction.*

